



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

88. INFORMAZIO BULETINA

2014ko Apirila



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Eusko Jaurlaritzak eta Akitaniako Eskualde Kontseiluak indartu egin dute Akitania-Euskadi Euroeskualdearekiko konpromisoa

Akitania-Euskadi Euroeskualdeak goi bilera egin zuen apirilaren 28an Bordelen, datozen urteetarako presidentetza eskualdatzeko. Ofizialki 2011n sortu zen Euroeskualdea eta ordutik, Akitaniako Eskualde Kontseiluak izan du presidentetza mugaz gaindiko lankidetzarako organo honetan. Lurralde Lankidetzako Europako Taldea da, juridikoki.

Goi bileran, bi gobernuetako presidentek berretsi egin dute Akitania-Euskadi Euroeskualdea sustatzen jarraitzeko konpromisoa eta iragarri dute 1,1 milioi euro bideratuko dituztela horretara ekitaldi honetan, gobernu bakoitzak % 50 jarrita. Era berean, bi presidentek adierazi dute Euroeskualdeko proiektuetan lanean jarraitzeko borondatea. Proiektu horien artean daude, besteak beste, mugaz gaindiko proiektuen urteroko deialdia, 2014-2020rako Akitania-Euskadi Plan Estrategiko berria eta Lurralde Lankidetzako Europako Taldearen posizionamendua dituen jarduera-eremu nagusiei lotutako sareetan: garraioa, goi mailako irakaskuntza, I+G, garapen ekonomikoa, turismoa eta kultura.

Presidentetza berriak ezarri dituen erronken artean aipagarriak dira kultura-aniztasunari eta dibertsitateari eta hirueletasunaren erabilerari bultzada ematea, Euroeskualdeko gobernantza irekiaren eredia indartzea eta 2014-2020 Plan Estrategikoak zehaztutako ardatzen harira lanean jarraitzea.

Lurralde Lankidetzarako Europako Taldearen figura Europar Batasunak sortu zuen 2006an eta Europako Batzordeak indartu egin du 2013an, 2014-2020 aldi berriko kohesio-politikarako tresna egoki izendatuz.

Informazio gehiago:

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/>



> Estatu kide bakoitzak Kohesio Politikari lotuta izandako lorpenen eta etorkizuneko asmoen inguruko xehetasunak

Europako Batzordeko Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak eguneratu egin du informazio-basea eta estatu kide bakoitzak Kohesio Politikaren 2014-2020 finantzaketa-aldirako dituen asmoei buruzko funtsezko informazioa txertatu du.

Fitxa berrietan jasota daude Kohesio Politikaren funtsetatik esleitutako kantitateak xehatuta eta inbertsioetarako lehentasun nagusiak. Informazio-fitxek orain arte lortutako emaitzen argazki eguneratua ere eskaintzen dute eta 2007-2013 aldiko proiektu arrakastatsuen erreferentzia ere bai.

Informazio horrekin batera, Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak 2014-2020 aldi berriko Kohesio Politikaren erreformari buruzko informazio orokorra ere eskaintzen du web-atarian.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/information/cohesion-policy-achievement-and-future-investment/index.cfm



> **Gipuzkoak berriro hartuko du parte Galileo Master lehiaketan**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuaren bidez eta Eusko Jaurlaritzak Galileo Master lehiaketako 2014ko deialdia zabaldu dute Euskadi eskualderako.

Galileo Master ESNC 2014 ideien eta proiektuen Europako lehiaketa bat da eta satellite bidezko posizionamendua erabiltzen duten aplikazioen garapena sustatzea du helburua. Horretarako, Europako sari nagusiaz eta sari berezietan gain, parte hartzen duten eskualdeek haien lurraldeetan enpresak garatzeko ideiak saritzen dituzte.

Lehiaketaren eskualdeko edizioaren helburua Europako lehiaketan parte har dezaketen nabigazio-teknologiei eta lokalizazio-aplikazioei lotutako ideiak eta proiektuak jasotzea da, ondoren, patentatzeko, garatzeko eta merkaturatzeko aukera izan dezaten.

Galileo Masters ekimena 2004an hasi zen Bavarian aplikazio berritzaileak sortzeko eta garatzeko estimulu gisa eta Europako Galileo satellite bidezko kokapenaren jardura merkaturatu sustatzeko. Enpresei, ikerketa-zentroei, unibertsitatei eta partikularrei zabalik dago. Aurten Europako 20 eskualdek hartuko dute parte.

Aurtengo deialdian ideiak aurkezteko epea apirilaren 1etik ekainaren 30era izango da.

Informazio gehiago:

<http://www.galileo-masters-gipuzkoa.net>



KOHESIO-POLITIKA

> 2014-2020rako kohesio-politika: Elkartzeko Akordioen eta Programa Operatiboen egoera une honetan

Espainiako gobernuak apirilaren amaieran bidali zion Europako Batzordeari Elkartzeko Akordioa. Europar Batasuneko estatu kide bakoitzak egiten duen dokumentua da eta bertan azaltzen dituzte Kohesio Politikarako Funtsen (EGEF, EGIF, Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsa eta Itsaso eta Arrantzako Europako Funtsa) estrategia eta inbertsiorako lehentasunak.

Elkartzeko Akordioa bidalita, negoziazio-prozesua hasten da Europako Batzordearekin elkarriketa formal bidez eta dokumentua behin betiko onartu arte iraungo du.

Batzordearen Araudia betez, epe horretan bertan Programa Operatiboak aurkeztu beharko dituzte Estatu/Eskualde kideek. Programa Operatibo horietan adieraziko dute erakunde gauzatzaileek zer lehentasun duten eta zer jarduera egingo duten dagokien eskumen-markoan.

Programa Operatiboak aurkeztu ondoren, Batzordeak gomendioak egin ahal izango ditu Programa horiek aurkezten direnetik hiru hileko epean eta Programa Operatiboak gauzatzeko, gehienez, sei hileko epea izango da aurkezten denetik zenbatzen hasita, betiere, estatu/eskualde kideak Batzordearen oharrak aintzat hartu ondoren.

Azken berrien arabera, Europako Batzordea 28 estatu kideren Elkartzeko Akordioak eta 10 herrialderen Programa Operatiboak ebaluatzen ari da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/newsroom/detail.cfm?id=1342&LAN=ES&lang=es

<http://www.dgfc.sgpg.meh.es/sitios/dgfc/es-ES/ipr/fcp1420/p/pa/Consulta%20Publica/aasociacion2014-2020.pdf>



> Europako Direktiba berri batek langileek aske zirkulatzeko duten eskubidea hobeto aplikatzea bermatuko du

Europako Batzordeak Direktiba bat onartu du Europar Batasuneko herritarrek beste estatu kide batean lan egiteko duten eskubidea herrialde bakoitzean hobeto aplikatzen dela bermatzeko.

Direktiba berriaren helburua langileen zirkulazio aserako dauden oztopoak ezabatzea da; esaterako, langile publikoek eta pribatuek Europar Batasunaren arauak ez ezagutzea eta harrerako estatu kideetan informazio eta laguntza bila joaten diren herritarrek izaten dituzten zailtasunak.

Batzordeak estatu kideei honako zerbitzu/erakunde hauek ezartzea eskatzen die:

- EBko langile migratzaileei laguntza eta asistentzia juridikoa eskainiko dien erakunde nazional bat edo gehiago
- Dagozkien eskubideak baliatzen saiatzen diren EBko langile migratzaileen eskubideak juridikoki eraginkortasunez babestea
- Informazio-sistemak langile migratzaileen eta enplegu-eskatzaileen eskubideei buruz. Sistema horiek erabilerrazak izan behar dute eta hizkuntza ofizial batean baino gehiagotan eskaini behar dira.

Arau horiek ez diete onura batetik bestera ibiltzen diren langileei bakarrik ekarriko, baizik baita enplegatzaileei ere, informazio gehiago izango baitute Eurpako Batzordeko beste herrialde batzuetako langileak kontratatzean.

Estatu kideek bi urte dituzte Direktiba horren aplikazio nazionala gauzatzeko.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-14-421_es.htm



> Europak nabarmendu egin du gazteen politikan Euskadik egindako lana

Eusko Jaurlaritzak, Gazteria eta Kirolak Zuzendaritzaren bidez, eta Euskadiko Gazteria Kontseiluak lan-saio batean hartu dute parte gazteriaren arloko Europako Batzordearen erakundeekin.

Saio horretan parte hartu dute gazteriaren inguruko Europako plataforma nagusiek eta Euskadik gazteria-politikan egindako lana, bereziki Euskadiko III. Gazteria Plana aurkeztu dute. Europako erakundeetako eta Gazteriaren Europako Foroko ordezkariak plan horren inguruan nabarmendu dute bat datorrela Europa 2020 Estrategiaren testuinguruan Europak garatutako programazio berriaren ildoekin.

Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzak eta Europako Batzordeak lankidetzarako hainbat bide zabaldu dituzte eta Euskadik sustatutako ekimenen eta ekintzen abangoardia eta erreferentzia nabarmendu dute. Gazteriaren Europako Foroarekin (Gazteriaren Europako Kontseiluak biltzen dituen Europako plataformarik handiena) eta AISEC (Gazteak sektore pribatuarekin lankidetzan aritzeko nazioarteko plataforma) plataformarekin izan litezkeen sinergiak ere sakon aztertu dituzte.

Informazio gehiago:

<https://www.irekia.euskadi.net/es/news/18789-europa-destaca-labor-euskadi-ambito-politica-juventud>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Europako Batzordean aurkeztu dute hondakinak kudeatzeko Gipuzkoaren eredua

Iñaki Errazkin, Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako foru diputatuak eta Ainhoa Iraola Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako zuzendariak Ekoberrikuntzaren XVI. Foroan hartu dute parte. Europako Batzordeak eta Alemaniako Gobernuak antolatutako Foroa apirilaren hasieran izan zen Hannoveren.

Hondakinen ahalmena. Hirietan ekonomia zirkularra lortzea izenburupean, ekonomia zirkularra lortzeko bidean eragiten duten faktoreak aztertu dituzte. Foroan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak hondakinak kudeatzeko Gipuzkoaren eredua eta Hernaniko esperientzia aurkeztu dituzte, antolatzaileek hala eskatuta.

Foroan parte hartu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak gain, Barbara Hendricks Alemaniako Ingurumeneko ministro federalak, Pal Martensson Gotenburg hiriko Ur eta Hondakinen Kudeaketa Iraunkorraren Departamentuko koordinatzaileak, Joan Marc Simon Europako Zero Zabor Sarearen koordinatzaileak eta Janez Potocnik Europako Ingurumeneko komisarioak.

Informazio gehiago:

<http://www.irekia.euskadi.net/es/news/18824-pais-vasco-referente-europeo-por-trabajo-con-las-personas-bienestar-naturaleza>



> Trenbide-azpiegiturek kohesionatu egiten dute Europaren garapena

Euskadiko eta Kataluniako Mugikortasun eta Garraio arloko arduradunek abiadura handiko euskal trenbide-sarearen Bergarako lanetara egindako bisitaldian, Ana Oregi, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak gogorarazi du garraio-sare mediterranearra eta atlantikoa hobetzea lehentasunezko helburua duela Europak, pertsonen eta salgaien mugikortasunerako sistema hobea izatera bideratutako *Connecting Europe* finantzaketa-mekanismoetatik onura handiagoa ateratzeko aukera baitago.

Sailburuak gogorarazi du ardatz atlantiko eta mediterranean lehentasun handiagoa ematen zaiela orain dauden "buxadurak" konpontzeko lanei, hala nola penintsulako sarbidea eta Euskadiren kasuan, intermodalitatearen balioa eranstean diote oinarritzko garraio-sareei, hobetu egiten baitira sareen barruko konexioak.

Eusko Jaurlaritza zain dago Europako Batzordeak Europaz Gaindiko Garraio Sareari buruzko Araudian ezarritako koordinatzailea noiz izendatuko. Koordinatzaile hori arduratuko da Europar Batasuneko sare nagusiko korridore guztietako inbertsioen nondik norakoak aztertzeaz. Koordinatzaile horrek gidatuko ditu foro espezifikoak eta urtea amaitu baino lehen lan-plangintza bat prestatuko dute egin beharreko proiektuak eta korridore bakoitzerako ezarritako funts- eta finantzaketa-iturriak zehaztuz.

Informazio gehiago:

<https://www.irekia.euskadi.net/es/news/18636-oregi-vila-las-infraestructuras-ferroviarias-cohesionan-desarrollo-europa>



> Batzordeak Bartzelonari eman dio Berrikuntzaren Europako Hiriburua saria

Europako Batzordeak Bartzelonari eman dio 2015. urteko Berrikuntzaren Europako Hiriburua saria *Innovation Union* ekimen bereziaren harira.

Herritarren mesetan berrikuntza inspiratzeko, sustatzeko eta bultzatzeko duen gaitasunagatik eman diote saria Bartzelonari. Hiria hiritarrei gerturatzeko teknologia berriak erabili izana nabarmendu du Batzordeak.

Berrikuntzaren Europako Hiriburua (iCapital) sariak berrikuntza sustatzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko ahalegin handiak egiten ari diren hiriak nabarmentzen ditu. Sari honen bidez, Europako Batzordeak hiriek berrikuntzarako, elkarriketarako eta trukerako espazio diren aldetik egiten duten lana aitortzen dute. 500.000 euroko saria Bartzelonaren berrikuntzarako ahaleginak indartzeko eta hedatzeko inbertituko da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/innovation-union/index_en.cfm?section=icapital



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza
Departamentua
Departamento de
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Apirila

DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> **Espezializazio Adimenduna eta Hazkunderako Europako Agenda (Europako Batzordea)**

Espezializazio Adimendunerako ikerketarako eta berrikuntzarako estrategiak, RIS3 esaten zaien horiek, oinarria dira 2014-2020 programazio-aldian Europako Egitura Funtsen eta Inbertsio Funtsen testuinguruan ikerketan eta berrikuntzan inbertsioak egiteko.

Argitalpen honek ikuspegi orokorra eskaintzen du, labur, estrategia eta prozesu horiek nola garatu azalduz eta Europar Batasuneko, herrialdeetako eta eskualdeetako lider politikoek ikuspegiak eta horiek lehiakortasuna hobetzeko eta hazkundera sustatzeko duten garrantzia adieraziz.

Estrategia mota hauek lantzen ari diren eskualdeen artean, Europako Batzordearen argitalpenak Euskadi nabarmendu du eta atal bat eskaini dio orain arte gisa horretako estrategiak garatzeko emandako urratsak azaltzeko.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/studies/pdf/smart_spec_growth_agenda.pdf



> Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020 - Basque Country Estrategia (Eusko Jaurlaritza)

2014-2016 aldirako bi plan estrategiko biltzen dituen ekimena da: Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ekintzako Plana eta Enpresak Nazioartekotzeko Plana.

2014-2016 aldirako Kanpo Ekintzako Planaren helburu nagusia Euskadi eragile global gisa kokatzea eta euskal interesak munduan defendatzea da. Aurkeztutako ekintzen artean nabarmentzeko modukoak dira Euskadira nazioarteko ekitaldiak erakartzeko apustua, eskualde estrategikoekin egindako aliantzen sare bat sortzea eta nazioarteko 200 proiektu finantzatzea, besteak beste.

Enpresak Nazioartekotzeko Planaren xedea, berriz, euskal ekonomia eta enpresa nazioartean lehiakorrago izatea da. Planak 6 ardatz estrategiko ditu eta horien artean aipagarriak dira euskal enpresa-ehuna nazioartekotzeko mailei eta faseei lotutako programak abian jartzea, batez ere enpresa ertain eta txikientzat; intereseko merkatuak zein diren zehaztea eta inbertsioak erakartzeko estrategia berri bat ere landuko da, beste ekintza batzuen artean.

Informazio gehiago:

https://www.irekia.euskadi.net/assets/attachments/4436/EstrategiaBasqueCountry_eu.pdf?1397030806



> European Social Innovation Competition: European enplegua sustatuko duten proiektu ekintzaileak

Europar Batasunak antolatutako lehiaketa honetan gizarte-ekintzailtza berritzailetik abiatuta enplegua edo lan mota berriak sortzeko irtenbide onenak bilatu nahi dira; ahalik eta pertsona kopuru handienari benetako eragina sortzeko gaitasuna duten irtenbideak, hain zuzen.

1.252 proiektu aurkeztu ziren eta horietatik 30 sailkatu ziren bigarren fasera. Martxoan izan zen bigarren fase hori, Bilbon. Bigarren fasetik 10 proiektu finalista hautatu dituzte. Hiru irabazleak zein diren Social Policy Innovation Conference biltzarrean jakinaraziko dute, maiatzaren erdialdean, eta bakoitzak 30.000 euro jasoko ditu.

Informazio gehiago:

<http://socialinnovationcompetition.eu/>